

# SOAK

REGARDS & PERSPECTIVES | BEGIRADAK & IKUSPEGIAK

## Gazteen etxebizitzak : zertan gara ?

## Logement des jeunes : où en est-on ?

2023ko OTSAILAN

**EUSKAL HERRIKO FJT-arekin EGINIKO DIAGNOSTIKOAREN SINTESIAK (2022ko MAIATZA)  
ETA ETXEBIZITZA ERAGILEEN KONFERENTZIA (2022ko AZAROA)**

SYNTHESES DU DIAGNOSTIC MENE AVEC LE FJT PAYS BASQUE (MAI 2022)  
ET DE LA CONFERENCE DES ACTEURS ET ACTRICES DU LOGEMENT (NOVEMBRE 2022)



CONSEIL DE DEVELOPPEMENT DU PAYS BASQUE  
IPAR EUSKAL HERRIKO GARAPEN KONTSEILUA

# ATXIKI BEHARREKO FUNTSEZKOENA

---

2022ko maiatzean, Euskal Herriko Garapen Kontseiluak [gazteen etxebizitzei buruzko diagnostiko bat bukatu zuen](#)<sup>1</sup> Euskal Herriko FJT erakundearekin elkarlanean, Euskal Herriko kanpainako eremuetako egiazko beharrak erakutsiz<sup>2</sup>.

Hilabete batzuk berantago, Estatuak oniritzia eman zion FJTri Euskal Herriko barnealdera hedatzeko. Garapen Kontseiluak, bere aldetik, **etxebizitza alorreko eragile guziak bildu zituen, Lekornen**, 2022ko azaroaren 25ean, analisiak partekatuz eta ekintzarako palankak identifikatzeko. 80 profesionalak erantzun zioten deialdiari, **gazteen etxebizitza-arazoei buruzko konferentzia baten beharra** agerraraziz.

Horrela, 2021en bukaeraren (diagnostikoaren hastapena) eta 2022ren bukaeraren (Lekorneko biltzarra) artean, **300 eragile inguru bildu ziren** parte hartzezko gunen andana batean: gazteak (eskolan direnak, formakuntzan, aktibitatean...) eta gazteen elkarteak, formakuntza erakundeetako edo tokiko animazio ekonomikoko egituretako arduradunak, enpresariak, lurraldeko hautetsiak, alokatzaile sozialak, CAF, Mission Locale, Estatuaren, Eskualdearen, Departamenduaren, Hirigunearen zerbitzuak... Bestalde, **730 gaztek** erantzun diote Garapen Kontseiluak Pirinio Atlantikoetako CAFekin egin inkestari.

Lan guzi hauetarik, Garapen Kontseiluak, *SOAK* honetan, laburpen bat proposatzen du, bai hasierako diagnostikoarena, bai gazteek eta tokiko eragileek egin dituzten analisiena (haien adierazpenak *verbatim* gisa bildu dira), Lekorneko biltzarrak aberastua, bai eragileak erabiltzen hasten diren ekintzen palanken perspektiba bat.

Hauek dira horren **irakaspen nagusiak**:

- Gazteak (formakuntzan, soldatapekoak, laborariak, aktibitate gabeak...) bereziki kaltetuak dira Ipar Euskal Herrian gertatzen ari den etxebizitza krisiarengatik;
- Egoera berdina da kanpainako eremuan, non prezioak emendatzen ari diren eta eskaintzak ez diren gazteen beharrei erantzuten (azalera ttipiak, alokatzeak...);
- Ipar Euskal Herriko enpresek zailtasunak badituzte langileen kontratatuzko, laster eskura daitekeen etxebizitza eskaintzarik ez dagoelako (bereziki lan kontratu mugatuko edo sasoikako gazteentzat, lurraldean berriki helduak izan edo ez);
- Gazteendako etxebizitza-eskaintza, beraz, barnealdeko lurraldeen garapen ekonomiko eta sozialarendako erronka da (bai Xiberoan eta Baxenabarren, bai Kanbo inguruan, Hazparnen, Bidaxunen...);
- Etxebizitza alorreko eragile publikoak behar berezi horietaz ohartzeko ari dira, baina jabe pribatuak maiz uzkur gelditzen dira gazteei alokatzeko ideiarekin aitzinean;
- Aterabide anitz abiatzen ari dira eta/edo pentsatzen ahal dira: FJTrekin, bere eskaintza barnealdean garatzeko prest baita, eta eragileak elkartzera eta elkarrekin

---

<sup>1</sup> CDPB / FJT Pays Basque, mai 2022. *Les besoins en logement des jeunes en Pays Basque intérieur*. <<https://societecivile-paysbasque.com/diag-logement-jeunes/>>.

<sup>2</sup> Hazparneko Lurraldeari (Kanboko eremura hedatua), Bidaxuneri, Nafarroa Behereari, eta Xiberoari dagozkien lurraldeak.

gehiago lan egitera eramanez (alokatzaile sozial bat eta CROUSen adar bat, adibidez), herri ttipiei lagunduz, etab.

- Gazteendako neurrira egin proposamenak eraiki eta proiektu horien animazioan bitartekoak ezarri behar dira (lurraldeko enplegatzailleekiko lotura, bereziki); Lekornen, eragileek egiazko gobernantza antolatu baten beharra agerrarazi dute;
- Eragile eta elkargo anitzek gazteen bizitokiei dagozkien eskumen eta eginkizunen parte bat daramate: lan kolektiborik gabe, partaidetza anitzeko hurbilketarik eta borondate politikorik gabe, ez da erantzun orokorrik izanen!

# TESTUINGURUA & METODOLOGIA

---

Garapen Kontseiluak anitz parte hartu zuen 2019an Euskal Hirigune Elkargoaren Tokiko Bizitegi-Planaren lantzearen kari, ikuspegi estrategiko bat<sup>3</sup> eta proposamen konkretu andana bat sortuz<sup>4</sup>. Proposatutak ziren orientabideen artean, Garapen Kontseiluak azpimarratu zuen gazteen etxebizitzaren gaiaz arduratzeko beharra. 2021eko apirilean, Garapen Kontseiluak bizilekuari buruzko bilkura bat antolatu eta agiri bat<sup>5</sup> argitaratu zuen eragileen mobilizatzeko.

Baina Euskal Herriko FJTk Garapen Kontseilua interpelatu zuen, 2021 erdialdean, kanpainako gazteen etxebizitzaren arazoari buruz. Bere aktibitateak Ipar Euskal Herri barnealdera hedatu nahirik, eta Estatuaren onespene berri baten aukerarekin, FJTk Garapen Kontseiluarengana jo zuen desfioen eta beharren ebaluatzeke, bere jakintzan oinarrituz, parte hartzeke diagnostiko kualitatibo baten animatzeko, gazte eta eragileen ikustera joan ahal izateke.

FJTk eta Garapen Kontseiluak lan metodologia bat eraiki dute, eta gidaritza batzorde bat osatu, non kideak bereziki engaiatu diren.

## Metodologia eta emaitzak

- **Gidaritza batzorde bat**, landa-lanaren abiatzean (2021eko azaroan) eta diagnostikoaren bukatzean (2022ko martxoan) bildua, gako-kide diren elkargoak elkartuz: elkargoak (Euskal Hirigune Elkargoa, Departamendua, Eskualdea, Estatu), alokatzaile sozialak (HSA, Office 64, COL, Soliha), Mission Locale, CAF.
- **Hiru online inkesta**, ondokoei zuzendurik:
  - [Lurraldeko gazteei](#) (2022ko otsailean hedatua Pirinio Atlantikoetako CAFekin partaidetzan) → **743** erantzun (ikus emaitzei buruzko fokua, hurrengo orrialdean);
  - [Herriei](#) (2021eko abenduan hedatua) → **41** erantzun;
  - [Eragile sozioekonomikoei eta formakuntza alorrekoiei](#) (2021eko abenduan hedatua) → **35** erantzun.
- **Lurraldeko 4 lantalde**, ekonomia eta formakuntza munduko eragileak, gazteen elkarteak eta beste elkarte batzuk, hautetsiak, elkargoen zerbitzuak, alokatzaileak, higiezinaren alorreko eragileak... bildu dituztenak Donibane Garazin, Donapaleun, Maulen (2021eko abenduan) eta Hazparnen (2022ko otsailean).

---

<sup>3</sup> CDPB, avril 2019. *Urgence logement : pour une stratégie ambitieuse au Pays Basque.* <[https://societecivile-paysbasque.com/wp-content/uploads/2019/08/Contribution\\_PLH\\_1\\_26.03.19\\_DVadoptee%CC%81.pdf](https://societecivile-paysbasque.com/wp-content/uploads/2019/08/Contribution_PLH_1_26.03.19_DVadoptee%CC%81.pdf)>.

<sup>4</sup> CDPB, octobre 2019. *PLH : les 25 propositions du Conseil de développement.* <[https://societecivile-paysbasque.com/wp-content/uploads/2019/10/Contribution2CDPB\\_PLH\\_adopteeCD101019.pdf](https://societecivile-paysbasque.com/wp-content/uploads/2019/10/Contribution2CDPB_PLH_adopteeCD101019.pdf)>

<sup>5</sup> CDPB, avril 2021. *Appel à une mobilisation collective pour sortir de la crise du logement au Pays Basque.* <[https://societecivile-paysbasque.com/wp-content/uploads/2021/04/CDPB\\_communique\\_habitat\\_050421.pdf](https://societecivile-paysbasque.com/wp-content/uploads/2021/04/CDPB_communique_habitat_050421.pdf)>

- **Banakako 25 elkarrizketa**, panelaren osatzeko: lurraldeko gazteak eta eragileak (hezitzaileak, higiezinaren arloko profesionalak, elkartearen ordezkariak...).
- **Eragileen arteko topaketa handi bat** (Lekornen, 2022ko azaroan) diagnostikoaren irakaspeneren partekatzeko eta aterabide kolektiboen identifikatzeko, lurraldeko **80 eragile** inguru bildurik: gazteak, alokatzaile sozialak, jabe pribatuak, enpresaburuak, bizi ekonomikoaren laguntzeko egiturak, hautetsiak, elkargoen zerbitzuak...

Lan horretan parte hartu duten eragileen, pertsonen, herrien eta kolektibitateen zerrenda eranskinean ageri da.

## Garapen Kontseiluak eta CAF erakundeak egin gazteei buruzko inkesta: zenbaki nagusiak

733 gaztek erantzun diote inkestari, Euskal Herrikoak edo bertan bizi direnak, eta horietatik % 10 Ipar Euskal Herriko barnealdetik heldu dira edo bertan bizi dira.

Euskal Herriko gazteen % 90ek adierazi dute zailtasunak badituztela/izan dituztela etxebizitzaren aurkitzeko  
Euskal Herri barnealdeko gazteen % 80k

Euskal Herriko gazteen % 71k beste etxebizitza mota batean bizi nahiko lukete  
Euskal Herri barnealdeko gazteen % 69k

Euskal Herriko gazteen % 64k irizpideak beheititu behar izan dituzte etxebizitza aurkitzeko  
Euskal Herri barnealdeko gazteen % 59k

Gazteen % 40k konponbide bat aurkitu behar izan dute noizbait (batzuetan larrialdikoa) etxebizitza aurkitzeko  
Euskal Herri barnealdeko gazteen % 31k

Asegabetasun eta zailtasun mailak oso antzekoak dira Euskal Herri barnealdeko erantzunak eta erantzun guztiak konparatzen direnean: **Euskal Herri osoko gazteek, eta ez bakarrik euskal kostaldean bizi direnek, etxebizitzaren krisiaren ondorioak bete-betean pairatzen dituzte.**